



## Internet Eguna 2014

### Nola erabiltzen duzu zuk euskara? Lehiaketa Instagramen

#### SARRERA

2014an ere Internet Eguna ospatuko dugu, nola ez!

Eta aurten, berriro ere, lehiaketa bat jarri dugu martxan. Instagramen bideratuko dugu txapelketa hau, *Nola erabiltzen duzu zuk euskara?* lema pean.

Internet eguna 2014

**Lehiaketa Instagramen**  
maiatzaren 16tik - ekainaren 13ra bitartean

**NOLA ERABILTZEN  
DUZU ZUK EUSKARA?**

- . Instagramen @azkuefundazioa jarraitu
- . Argazki edo bideoa argitaratu #Euskara
- traola erabiliz eta @azkuefundazioa etiketatuz
- . "Atsegin dut" gehien jasotzen dituen bazaraz, irabazlea izango zara!

**AZKUE  
FUNDAZIOA**

#### LEHIAKETAREN NONDIK NORAKOAK

Nola erabiltzen duzu zuk euskara? lehiaketa

##### Helburuak

Euskarari eta euskaldunei presentzia ematea Instagram sare sozialean eta euskaldunon harremanak estutzea plataforma honetan, elkarren artean ezagutzeko aukera emanez eta guztion artean euskararekiko ardura piztuz.



### Euskarria

Instagram sare sozialesan argitaratutako argazki edo bideoen bidez.

### Datak

2014ko maiatzaren 16tik - ekainaren 13ra arte.

### Saria

Sari bakarra egongo da: MemUp SlidePad tablet bat

### Zer egin behar da parte hartzeko?

Oso erraza da, pausu hauek jarraitu besterik ez:

- Galdera honetan pentsatu eta argazki edo bideo bat asmatu horri erantzuna emanez: **Nola erabiltzen duzu zuk euskara?**
- Instagramen [@azkuefundazioa](#) jarraitu
- Zure argazki edo bideoa **argitaratu #Euskara traola** erabiliz eta [@azkuefundazioa](#) etiketatuz
- **Nork irabaziko du?** Argazkia edo bideoa argitaratzen diren unetik **"Atsegin dut" gehien jasotzen dituen lana**. Beraz, ezagunen laguntza eskatu!

Lehiaketako epearen barruan argitaratutako argazki edo bideoak hartuko dira kontutan eta erabiltzaile bakoitzak nahi dituen beste argazki edo bideo argitara ditzake.

## OINARRIAK

1. Lehiaketa hau Azkue Fundazioak antolatzen du internet eguna ospatzeko **Nola erabiltzen duzu zuk euskara?** lema pean.
2. **Lehiaketaren helburuak** hauek dira:
  - Euskarari eta euskaldunei presentzia ematea Instagram sare sozialesan
  - Euskaldunon harremanak estutzea plataforma honetan, elkarren artean ezagutzeko aukera emanez
  - Guztion artean euskararekiko ardura piztu eta sareko jarduera sustatu
  - Instagram sare sozialesan argitaratutako argazki edo bideoen bidez bideratuko da lehiaketa.
3. **Datak:** 2014ko **maiatzaren 16tik - ekainaren 13ra** arte luzatuko da lehiaketa eta epe honen barruan argitaratutako argazkiak bakarrik izango dira kontutan.
4. **Saria:** Sari bakarra egongo da: MemUp SlidePad tablet bat



5. **Parte hartzeko modua:** erabiltzaileek pausu hauek jarraitu beharko dituzte lehiaketan parte hartzeko:
  - Galdera honetan pentsatu eta argazki edo bideo bat asmatu horri erantzuna emanaz: **Nola erabiltzen duzu zuk euskara?**
  - Instagramen [@azkuefundazioa](#) ren jarraitzailea izan
  - Zure argazki edo bideoa **argitaratu #Euskara traola** erabiliz eta [@azkuefundazioa](#) etiketatuz
  
6. **Lan irabazlearen aukeraketa:** Argazkia edo bideoa argitaratzen diren unetik eta lehiaketarako epea bukatu arte **"Atsegin dut" gehien jasotzen dituen lana** suertatuko da sariaren irabazle.
7. **Lehiaketako epearen barruan argitaratutako argazki edo bideoak hartuko dira kontutan.**
8. **Lana lehiaketarako hautagai** kontutan hartuta izateko argitalpenetan ezarritako hiru **baldintzak** bete beharko dituzte:
  1. Erabiltzailea [@azkuefundazioa](#) ren jarraitzailea izatea Instagramen.
  2. Argazkia edo bideoa **#Euskara traolarekin argitaratua** izatea. Beste traola batzuk gehitzea ere onartuko da.
  3. Argazkia edo bideoan [@azkuefundazioa](#) etiketatua izatea.
  
9. **Erabiltzaile bakoitzak nahi dituen beste argazki edo bideo argitara ditzake.**
10. **Parte hartzaileen ardura izango da argazkia edo bideoaren gaineko jabetza edo eskubidea daukatela bermatzea.** Azkue Fundazioak ez du inolako erantzunkizunik izango egile eskubideekin edo beste edozein kexa edo eskakizunen inguruan.
11. Erabiltzaileek **Azkue Fundazioari baimena ematen diote beraien argazki edo bideoak erabiltzeko eta sarean zabaltzeko.**
12. **Azkue Fundazioak argazki/bideo irabazlea bere komunikazioetarako erabiltzeko eskubidea izango du.** Beti egilea aipatuko du.
13. **Lan irabazlea ekainaren 16an iragarriko du Azkue Fundazioak,** webgune, blog eta sare sozialen bidez.
14. **Saria jasotzeko irabazlea Bilbon dagoen Euskararen Etxera hurbilduko da.** Eta berak etortzeko aukerarik ez balu, ordezkari bat bidali beharko du sariaren bila. Azkue Fundazioak saria jasotzen duela erakutsiko du sarean, argazki eta iruzkinen bidez.
15. **Irabazleak saria ekainaren 30a baino lehen jaso beharko du.** Horrela ez balitz, Azkue Fundazioak ez dio saria banatuko eta ez da sariaren postako bidalketarik egingo ere.

